

IKASLEAK MUGIKORTASUNERAKO AUKERATZEKO IRIZPIDEAK, EUROPAKO ERASMUS+ PROGRAMAREN BAITAN

Lehenengo kurtsoko moduloren bat gainditzeke, edo lehen ebaluazioan suspenditurik (berreskurapenaren aurretik) duen ikasleagoak ez du diru laguntza hau eskatzerik.

Izangai bakoitzak lortzen duen azkeneko puntuazioa jarraian adierazten diren ataletan lortutako puntuazioen batuketa izango da, gehienez 10 punturaino:

1. % 30: **espediente akademikoa**: lehenengo mailan eta 2. mailako lehenengo ebaluazioan egindako eta ebaluatutako modulu guztien batez besteko nota. (Gehienez 3 puntu).
2. % 30: **helmutgako herrialdeko komunikazio-hizkuntzan izangaiak duen ahozko maila**; maila hori ingeles irakasleek neurtzen dute, horretarako prestatutako proba baten bidez. (Gehienez 3 puntu)
3. % 40: ikaslea matrikulatuta dagoen ikasturteko (2.) tutore eta irakasleen balorapena, honako hau kontuan hartuta: (gehienez 4 puntu)

- **Ardura eta autonomia pertsonala**
- **Motibazioa**
- **Arazoak gainditzeko gaitasuna**
- **Gizarte-trebetasunak**

Azkeneko puntuazioa bigarren mailako lehenengo ebaluazioaren bileran zehaztuko da. Aukeraketa eginda dagoenean, emaitzak interesatuei jakinaraziko zaizkie.

Erasmus+ programaren ikastetxeko arduradunak kanpo utz ditzake aukeratutako ikasleak, baldin eta mugikortasunaren aurreko prozesuan beren konpromisoak betetzen ez badituzte: dokumentazioa entregatzea, bileretara etortzea, ...

Azkeneko esleipena heziketa ziklo bakoitzetik izena eman duten ikasleen eta eskura dauden enpresen kopuruaren mende egongo da.